



## **EUSKARAZKO UDALEKUETAN (D EREDUA) PARTE HARTZEAGATIKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA**

### **2025. urtea**

Uharteko Udalak, Euskara Zerbitzuaren bidez, euskara hutsez egindako udalekuetan parte hartzea diruz lagunduko du, beti ere, jarraiturik honako

### **OINARRIAK**

**LEHENENA.-** Deialdiaren xedea.

1.1. Deialdi honek xedea du eduki ludikoak, kiroltakoak eta/edo naturarekin harremanetan egotekoak proposatzen dituzten euskarazko udalekuak, D ereduko ikasleentzat antolatzen direnak, sortzen duen gastua hein batean finantzatzea. Diru-laguntza hauek 2025. urteko aurrekontuko 3350-48000 – *Hizkuntza Normalizazio Transferentziak* diru-sailaren kontura joango dira. Xede honetarako, gehienez ere, 3.000€ erabiliko dira.

1.2. Deialdi honetatik kanpo geratuko dira, ordea:

- a. Uharteko udalaren bidez, zuzenean zein zeharka, kudeatutakoak –baita Udalaren diru-laguntza jasotzen dutenak ere–, sartuta baitago jadanik horien kuotan udalaren diru-laguntza.
- b. Txango eta bidaiak.
- c. Udalerrian edo udalerritik hurbil egonda barnetegi erregimena eskatzen ez dutenak.

**BIGARRENA.-** Diru-laguntza eskatzeko baldintzak.

2.1. Honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak eskatu ahalko dute euskarazko udalekuetarako diru-laguntza:

- a. LHko edo DBHko ikaslea izatea.
- b. D ereduko ikaslea izatea (ikastetxe publiko edo ikastolan euskaraz ikasten dutenak).
- c. Uharten erroldatua egotea udalekua irauten duen bitartean eta diru-laguntza eskatu eta ebazten den bitartean.

**HIRUGARRENA.-** Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

3.1. Diruz lagunduko dira D ereduko ikasleentzat antolatutako euskara hutsean egindako udalekuak, hau da, bizilekua den udalerritik kanpo egonaldietan parte hartzeagatik sortutako gastuak.

3.2. Haur/gazte bakoitzak udaleku bakarrarengatik jaso ahalko du diru-laguntza.

3.3. Udalekuak 4 egun (3 gau) baino gehiago eta 15 egun (14 gau) baino gutxiago iraun beharko du, eta udako oporraldian gauzatuko da (ekainaren 21etik irailaren 10era).

**LAUGARRENA.-** Eskabideak aurkezteko epea eta lekua.

4.1. Eskabideak urrian aurkeztuko dira Uharteko Udalaren Erregistroan. Horretarako eskabide orokorra bete eta sinatu beharko da. Eskabideekin batera deialdi honetako bosgarren oinarrian ezarritako agiriak eta informazioa erantsi beharko da.

4.2. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina da.

4.3. Aurkeztutako eskabidea deialdi honetan ezartzen diren baldintzak edo agiriak beteko ez balitu, eskatzaileari, gehienez ere, hamar eguneko epe luzaezinean horiek aurkezteko eskatuko zaio eta jakinaraziko zaio, hori egin ezean, eskabidea bertan behera utziko zaiola, aldez aurretik eginiko ebazpena bidez Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 71. artikuluan adierazten duen bezala.

**BOSGARRENA-** Eskabidearekin batera aurkeztu behar diren agiri eta informazioa.

5.1. Eskabidearekin batera ondoren aipatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztu beharko dira:

- a. Eskatzailearen guraso baten edo legez ordezkatzeko duen tutore baten Nortasun Agiriaren zenbakia.
- b. Familiaren diru-sarrerak gordinak adierazten dituen agiria (2024ko errenta aitortpena), baldin eta aurretik aurkeztuta ez badu.
- c. Udalekua antolatzen duen entitateak izenpeturiko dokumentua, non hari buruzko baldintzak –euskarari emandako tratamendua eta helburu linguistikoak, iraupen datak, jardueren egitaraua edo liburuxka, prezioa- eta asistentzia egiaztatzea azaldu behar diren.
- d. Udalekuaren matrikula ordainagiria (banketxeak edo enpresa antolatzaileak egindakoa) non kostuaren %100 ordainduta agertuko den.
- e. Diru-laguntza jasotzeko nahi den kontu zenbakia (IBAN).

**SEIGARRENA.-** Eskabideen balorazioa.

6.1. Eskabideak ondoren adierazten den bezala baloratuko dira:

- a. Kontutan hartuko dira familiaren urteko diru-sarrerak gordinak (errenta aitortpeneko 507, 8810 eta 8808 laukitxoetako kopuruen batura ken 708 laukitxoetako kopurua) eta familia unitatea osatzen duten pertsonen artean zatitu.
- b. Diru-sarrerak ziurtatzeko, azkeneko Errenta Zergaren aitortpenaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko da, edo, aitortpena egiteko beharra ez dutenen kasuan, hori adierazten duen Foru Ogasunak eginiko agiri bat. Hori aurkeztu ezean, eskatzaileak jasotako familiaren diru-sarrerak gordinen Zinpeko Aitortpena aurkeztu beharko du, eta ziurtagiriekin frogatu.
- c. Aurreko guztiak aparte, eskatzailearen familiako diru-sarrerak errealak frogatzeko, Udalak beharrezkoak baiesten dituen frogak agiri guztiak eska ditzake.

6.2. Diru-laguntzaren zenbatekoa, gehienez ere, 130 eurokoa izanen da eta ondorengo baremo ekonomikoaren arabera banatuko da:



**Ayuntamiento de Huarte**  
***Uharteko Udala***

Pl. San Juan, 1  
31620 HUARTE / UHARTE  
(Navarra / Nafarroa)  
CIF – P 3112100 G  
Tel. 948 33 07 61  
Fax 948 33 19 13  
[ayuntamiento@huarte.es](mailto:ayuntamiento@huarte.es)  
[www.huarte.es](http://www.huarte.es)

|                                      |     |
|--------------------------------------|-----|
| PCE <5.000€ .....                    | %70 |
| PCE 5.001€ eta 8.000€ artean .....   | %60 |
| PCE 8.001€ eta 10.000€ artean .....  | %50 |
| PCE 10.001€ eta 15.000€ artean ..... | %40 |
| PCE 15.001€ eta 20.000€ artean ..... | %30 |
| PCE 20.001€ eta 30.000€ artean ..... | %20 |
| PCE >30.001€ .....                   | %10 |

6.3. Beken eskaera urte batekoa izanen da, eta ematea baldintzatuta egonen da eskatu duen ariketa ekonomikoan Udalak duen aurrekontua izateari.

**6.4. Edozein kasutan, eta aurrekontu izatearen arabera, Udalak beste irizpide batzuk aplikatuko ditu, behar izanez gero, hala nola eskatzaile kopurua eta bakoitzari egokitutako kopurua, kantitate horren banaketa proportzionala eta bidezkoa egin ahal izateko. Azken hau aplikatuz gero, egokitutako kantitatean moldaketak suerta daiteke.**

**ZAZPIGARRENA.-** Eskabideen azterketa eta ebazpena.

7.1. Aurkeztutako eskabideak Euskara Zerbitzuak baloratuko ditu eta, ebazpen proposamena egiteko, ofizioz burutuko ditu datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatze beharrezkoak estimatzen dituen jardunbideak.

7.2. Diru-laguntzak Alkatetzaren Ebazpena bidez emanen dira.

**ZORTZIGARRENA.-** Ebazpena emateko epea.

8.1. Ebazpena, gehienez ere, eskabideak aurkezteko epea bukatu eta hilabeteko epean emanen da.

8.2. Epe hori pasatzen bada inolako ebazpenik eman gabe, eskatzaileak eskabidea ezeztatua bezala ulertu ahalko du.

**BEDERATZIGARRENA.-** Jakinarazpena edo argitaratzea.

9.1. Kontzesio ebazpena eskatzaileei jakinaraziko zaie 2011ko abenduaren 22ko (251 zenbakiko NAOn argitaratua) Udal Ordenantza Orokorrean ezarritakoaren arabera.

9.2. Kontzesio ebazpena parte-hartzaile guztiei jakinaraziko zaio eta bertan deialdia, egitaraua eta aurrekontu kreditua zehaztuko da, bai eta onuraduna, emandako kantitatea eta xedea. Ebazpena Uharteko Udalaren Iragarki Oholean argitaratuko da.

9.3. Ebazpenaren kontra, bide administratiboa itxiko duena, errekurso hauetakoren bat jarri ahalko da aukeran:

- a. Berraztertze helegitea, egintzaren organo egileari berari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita.
- b. Administrazioarekiko auzi-helegitea, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aitzina, Nafarroako Administrazioarekiko Auzien epaitegiari edo sailari zuzendua.
- c. Gora jotzeko helegitea, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazten denetik aitzina.

**HAMARGARRENA.-** Diru-laguntzen ordainketa.

10.1. Emandako diru-laguntzaren ordainketa burutuko da diru-laguntzak ematen dituen ebazpena egin eta biharamunetik kontatuta hilabeteko epean.

Uharte, 2025eko uztailaren 22a.